



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da”

2023ko urriaren 8a  
Urteko 27. igandea (A)

### Mateo 21, 33-43.

“Entzun beste parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta harresiz inguratu; lurrean dolarea egin eta mahastizainaren dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zizkien nekazariei, fruitutik zegokion partea jasotzera. Baina nekazariak morroiak hartu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berrero beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenik, bere semea bidali zien, honela pentsatuz: ‘Neure semeari bederen izango diote begirune’. Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zuten beren artean: ‘Oinordekoa duk! Hil dezagun eta egin gaitezen mahastiaren jabe’. Hartu, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten”.

Jesusek galdetu zien: Zer egingo ote die nekazari horiei mahastijabeak itzultzean?

Erantzun zioten: Gupidarik gabe hilko ditu eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuen esku utziko du mahastia.

Jesusek esan zien: Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena: *Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?* “Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio.

Jesusek esan zien: Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena: *Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?* Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio.

## JAINKOARI EZ HUTS EGIN

*José Antonio Pagola*

«Mahastizain hiltzaileen» parabola hain bortitza da, non nekez onartzen baitugu gurekin zerikusirik duen oharkizun profetiko honek, Jesusek bere garaiko agintari erlijiosoei zuzendu zien honek.

Nagusi batek bere mahastia lantzeko ardura eman dien laborari batzuek ari da kontakizuna. Mahats-biltze sasoia heldu denean, gauza harrigarri eta ustekabekoa gertatu da. Laborariak uko egin diote jabeari uzta emateari. Nagusiak ez du jasoko hainbeste espero zuen uzta.

Laborarien ausardia sinetsezina da. Uzta jasotzeko jabeak bidali dizkien morroiak hil egin dituzte, bata bestearen ondoren. Are gehiago. Bere semea bidali dienean, «mahastiaz kanpo» atera eta hil egin dute, ororen jaun eta jabe bakar berak bihurtzeko.

Zer egin diezaike mahastiaren jabe horrek laborari horiei? Agintari erlijiosoen, urduri entzuten ari direla, ondorio izugarri hau atera dute: hil egingo ditu eta «uzta bere garaian emango dioten» beste laborari batzuei utziko die mahastia. Berak ari dira beren burua gaitzesten. Aurpegira bota die Jesusek: «Horregatik diotsuet, zuei Jainkoaren erreinua kendu eta uzta emango duen beste herri bati emango zaiola».

«Jainkoaren mahastian» ez dago lekurik fruiturik emango ez duenarentzat. Jesusek hots egin eta sustatu duen Jainkoaren erreinuaren egitasmoan ezin izan dute lekurik dina ez diren «laborariak», Jainkoaren Semea Jauntzat aitortzen ez dutenek, Jainkoaren herriaren jabe, jaun eta nagusi berak direla uste dutenek. «Fruitua emango duen herri batek» ordeztuko ditu.

Batzuetan uste izan dugu, ezen parabola mehatxagarri hau Kristoren aurrekoentzat dela, Itun Zaharreko herriarentzat, baina ez dela guretzat, ez dela Itun Berriko herri garenontzat, Kristo beti gurekin izango den bermea dugulako.

Oker gaude. Gutaz ere ari da parabola. Jainkoak ez du zertan bedeinkatu kristautasun agor bat, espero zuen fruitua emango ez diona. Ez du zertan bat egin gure inkoherentzia, desbideratze eta leialtasun eskasarekin. Duin ez diren mahastiko langileak Jainkoaren erreinuaren dinako fruitua emango duen herri batek ordeztu ditzan nahi du Jainkoak gaur ere.